

Ikasle-Irakasleak elkarrekin

(Students-Teachers together)

Ugartetxea Arrieta, Arantxa

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1137-4446 (2005), 14; 103-141]

Jaso: 05.03.10

Onartu: 05.05.18

Ikasle-Irakasleak elkarrekin; garai batean Txingurri Euskaltegiko (Herrera-Donostia) irakasle, laguntzaile eta ikasle izandakoak, Paulo Freireren pedagogia ildoan bizi izan dugun esperientzia da. Helburu zehatz batekin eta taldean egindako lana da. Azpimarratzen dugu, euskararen ikaskuntzan eta bizitzen ari garen euskaduntzearen prozesuan esperimentatzen dugun ikasle eta irakaslearen arteko harreman ezinbestekoa.

Giltza-Hitzak: Txingurri Euskaltegia.

Alumnos-profesores juntos es una experiencia al hilo de la pedagogía de Paulo Freire, realizada por una profesora, auxiliares y alumnos del Euskaltegi Txingurri (Herrera-Donostia). Trabajo realizado en grupo con el objetivo especial de subrayar la insustituible relación experimentada entre educador y educado, en el aprendizaje del euskara y durante el proceso de euskaldunización que vivenciamos.

Palabras Clave: Txingurri Euskaltegia.

Apprenants-enseignants ensemble est une expérience réalisé dans le cadre de l'approche pédagogique de Paulo Freire par un professeur, des auxiliaires et élèves de Euskaltegi Txingurri (Herrera-Donostia). Le but majeur de ce travail a été de souligner le caractère essentiel du rapport entre enseignants et apprenants dans l'acquisition de la langue basque et au cours du processus d'euskaldunisation actuel.

Mots Clés: Txingurri Euskaltegia.

HITZAURREA

Eusko Ikaskuntzan eta zuzenki Hezkuntza sailaren barruan, egun, bi lizenziatu: Arantxa Ugartetxea (pedagogoa), Olatz Martinez (kazetaria), eta lau ikaslek: Haritz Mendiguren (filosofia ikaslea); Enrique Pablos (Magisteritza ikaslea); Myriam Perez del Olmo (enpresaritza ikaslea); eta Loreto Alonsok (selektibitate ikaslea) parte hartu dugu. *Txingurri Euskaltegian* Arantxa Ugartetxea zuzendari pedagogikoa izan zen garaian, ibilitakoak gara denok. Euskararen inguruan bizi izandakoak elkartu gaitu, hezkuntza eta euskalduntze prozesuan bizi eta bizitzen dugunaren ikusmira ikertzaileak hain zuzen. Elkarrekin egindako irakurketa da hau, gugan bizikidetzen diren bi errealitate horien, hau da: ikaslearen eta irakaslearen arteko oreka pedagogiko handiagoa lortu nahian. Hezkuntzaren praktika eremuan bizi izan ditugunak oinarri eta abiapuntu gertatzen dira lan honetan; berriro ere, une pedagogiko praktikoko honen bidez, ikasle eta irakaslearen arteko harremanaren balioa indartzen dugularik.

Kezka nagusi batek eraman gaitu euskara gureganatze prozesuan geldiu-ne bat egitera, patxadaz aztertzeko zer gertatu eta gertatzen zaigun euskalduntze ibilbide horretan gabiltzanoi. Hor gabiltza urteak joan eta urteak etorri euskarazko klaseak ematen eta jasotzen, euskara beharrezkoa delakoan egun bizi dugun gizarte giroan. Batzuk gogoz beste batzuk behartuta, eta gehiegi ohartu gabe zertan gabiltzan besteok. Helburua euskara ikastea da baina, nola gertatzen den hau, arreta gehiagorekin begiratzea merezi duela iruditzen zaigu. Beraz, euskara gureganatzearen magia, nola bizitzen dugun prozesu hori eta ibilaldi honetan gurutzatzen diren emozioetan baitago!

*Txingurri euskaltegi*ko taldeak A eta B eredu ikaslek osatuak dira. Kopuru handienak ama hizkuntza gaztelania dute eta euskaldunak ez diren giroetan igarotzen dute eguna, euskara ikasgai bezala bizitzen dute gehiengoek eta hari lotuta dituzten ariketak eta jakin beharrak askorentzat zama astu-negia gertatzen da. Euskararekiko ezkortasunaren adierazpenak nabarmenak dira askotan euskaltegi honetako egunerokotasunean. Egin beharraren ezau-garria gehiago dauka gustuko atxikimenduarena baino, hau izanik, azken batean, gogoeta hauetara bideratzen gaituena. Nerabe urteetan gaudenez gehiengoak eta ikasketa pilo baten barruan murgildurik, oraindik ziur ez dakigula zertan gabiltzan, euskara ikasgai bat gehiago bezala bizitzeak, giro euskaldunean bizi ez garen gazteengan, ezkortasun gehiegi sortzen duela da gure susmoa.

Arantxa Ugartetxeak egun batean eginiko deiari erantzun diogu gogoz, denok desira genuelako hainbeste urtetan (zortzi batzuk) elkarrekin egon ondoren (ia egunero) euskara eskuartean tresna bezala erabiliz, nola eta zein neurritan gureganatzen ari ginen jakitea. Hein berean elkarrekin era lasai eta atseginean egoteko eta hitz egiteko desioa ere sumatzen genuen. Nor ginen gutariko bakoitza, ikasle edo irakasle izateaz gain, adierazteko asmo isila zegoen. Azken batean mila sentipen eta emozio mota igarotakoak ginen urteetan zehar euskara ditxosozkoaren ikasketaren ildoan, egun bat eta beste, euskaltegi berezi honetan.

Eta ikasketa guztietan gertatzen den bezala, bi eginbehar nabarmenak agerian jarri nahi izan ditugu, mahai baten inguruan solaskide eta hein berean ikertzaille tankerara egindako ekitaldi pedagogikoa den tertulia honetan. Aukeratuak izan diren ikasleak, eredugarriak bezala ikusiak izan dira eta irakaslea, ikasleekin dituen harremanetaz kezkatuta dagoenez (denbora gutxi duelako beraiekin harremanetan era lasaiagoan egoteko), Eusko Ikaskuntzak emandako aukeraren bidez, euskararen ildoan ditugun bizipenak aztertzeko elkarrekin gogoz bildu gara. Euskararen zainketa berezian gabilitza, norainoko ukituak sortu dituen gure barruan jakin nahian eta gerora begira egin behar diren zuzenketa eta zenbait ekimenerako bultzada sentitu nahian.

Edozein gaik irakaskuntza eremuan arreta berezia sor dio ikasle eta irakaslearen arteko harremanari, gaia bera tresna medio delarik. Baina euskara gureganatze honetan, pedagogiarenekin ezaugarri berezietako bat denez ikasle eta irakaslearen arteko ikasi eta irakatsi hori nola gertatzen denaren zainketa, ezan beharra dago zainketa honek euskalduntze prozesuan garrantzi izugarria duela, mota ezberdineko harreman barruan egiten denez. Dugun edo ez dugun hizkuntzaren gureganatze hori irakasle eta ikasleen bitarteko espazio psikikoan gertatzen da hain zuzen. Euskararen ezaguera transferentzia gisara soilik egitea ez da posible, izate pertsonal eta gizarte kultural baten adierazgarri nabarmenena delako. Bizipenez osatutako estruktura pertsonala eta kulturala da euskara. Hau guztiarengatik ezinbestekoa iruditu zaigu norbanako hezkuntza historiaren zehar miatzea nolako atxikimendu, lotura, edo gorrotoaren bide izan diren bizi izan ditugun era askotako, irakasleen eta ikasleen arteko harreman horiek. Ahalegin horretan euskararen eremuan gertatutakoak bereziki aintzakotzat harturik.

Horrela gauzak, ikusi dugu irakasleen eta ikasleen arteko harremanetan oinarritzen den pedagogia berezia dugula Paulo Freire brasildarrarena eta horregatik bere iturrietatik jaso nahi izan ditugu gai honi buruzko zenbait gogoeta eta ikuspuntu. Dena dela, tartean bere ikaslea izandako bat dagoenez, honek ikusmira eta jakin mina gehiago piztu digu denei zenbait gertakizun eta une bitxiak bizi izan ditugulako, nolako portaera zuen irakasle hark unibertsitaterako gela baten barruan tokatzen zitzaizkion ikasleekin, jakiten joan garen arabera. Era honetara bere liburuetan idatzia dagoenari zenbait kasutan bizipen praktikoaren osagaia ezarriz.

Hitz egin eta idatzi egin dugu. Hitz egindakoaren adierazpen berezia idatzia denez eta hein berean hizkuntza bizitzeko era desberdina, komenigarria iruditu zaigu esandako zenbait gauza txuri beltzean ipintzea gero lana osatzerakoan ager dadin. Hau horrela izanik, idatzitakoa hiru ataletan banatu dugu: **1) Giro-tzen; 2) Txingurri Euskaltegia eta 3) Elkarrekin egindako irakurketa unea.**

Euskara eta gaztelania izan dira erabilitako hizkuntzak giro aske eta lasaian, biak, bizi dugun errealitatearen adierazle direnez. Dena dela "Txingurri Euskaltegia" atalean euskara izan da nagusi eta hizkuntza bakarra, euskaltegia euskararen leku denez errealitate hau errespetatu nahian. Bai euskaraz eta bai gaztelaniaz egindakoa ez da bata bestearen itzulpena, elkar osatzen duten agerpenak baizik.

GIROTZEN

Asmo onez, ikusmira eta elkarren berri jakiteko gogoz elkartu ginen larunbat goiz batean lehenengo aldiz lan hau antolatzeko. Emozio handi baten babespean denok aurkitzen ginela esango nuke. Gauza asko esan nahian eta hitzik ateratzen ez zitzaigula. Nondik hasi? Zer esan? Sentitzen genuen gutzia esaterik ba ote zegoen? Euskaraz hitz egin behar ote zen beti? Gaztelaniaz zenbait gauza adieraztea posible ote zen? ... Euskaltegian ibilitako urteak elkartzen gintuen, nork esan hau gertatuko zenik! Lehenengo keinu pedagogikoa isiluneak errespetatzea izan zen. Historia pertsonalez zamaturiko isilune haiek lasaitasunez onartuak izan ziren, lehenengo aldia zelako ikasleak eta irakasleak elkarrekin eta maila berean aurrez aurre aurkitzen ginelako euskarak sortu izandako ukitu bereziaz hitz egitearren.

Paulo Freireren liburu batzuk mahaiaren erdian zeuden eta naturaltasun osoz norbaitek eta gero besteok hasi ginen haietako bat aukeratzen. Elkar ikusi gabeko denbora laburrean gertaturiko gauzak kontatu ondoren, hurrengo bilerarako zerbait irakurrita aukeratu izandako liburuan eta hari buruz gogoetaren bat idatzia ekartzekotan geratu ginen. Nola Arantxa Ugartetxea izan zen deialdia egin ziguna lan hau onartzeko unean, agertu nahi izan zuen buruan bueltaka zerabilen kezka: geure arteko harremanetarako denbora gehiago ez edukitzea euskarazko klaseaz aparte, beti gai honi zegozkion etxeko lanak eginbeharraren menpean bizituz. Azken batean, nola bizitzen genuen euskara gureganatze hori irakaslea bitarteko nabarmena den ekintza honetan, jakin nahian zebilen.

Horrela gauzak, bakoitzaren adierazpen idatziak eta hauen inguruan sortutako eztabaida eta elkarrizketak izan ziren handik aurrera gure lanaren abiapuntu mamitsua. Konfiantza eta giro askeak gure arteko komunikazioa erraztu eta zenbait unetan inoiz azaleratu gabeko zenbait hunkipenen magala bihurtu zen. Gauza polit eta bitxiak gertatuz komunikatze prozesu honetan euskararen erabilpenaren ildoan. Gaztelania eta euskara aukera maitagarriaren giroan erabakiak gertatu ziren eta hau horrela izanik, hasieran euskaraz hitz eta idazteko mugak sentitzen genituenak ere azkenerako naturaltasunez eta bizi izandako giroak eraginda, euskaraz lasai idaztera iritsi ginen. Poliki-poliki ohartu gara emozio berak elkartzen gaituela: euskararen jabetzea. Batzuk zailtasunak ditugu eta besteok ez hainbesterakoak baina gogoa eta nahia nabariak dira, askotan ezina jabetzen bada ere gogo hau zapuztu nahian.

Hezkuntza munduan hezitzaile eta hezi gaiaren arteko harremanaz hitz egiten dugu jarraian, eskola eta unibertsitate garaian bizitutakoaz hain zuzen. Euskarazko klaseetan gertatutakoaz. Bukaeran, esandakoaren artetik nabarmenenak iruditzen zaizkigunak azpimarratuz.

Enrique Pablos:

“Realizando un análisis de la educación recibida a lo largo de mi historia estudiantil, debo retroceder hasta la Educación General Básica y las ense-

ñanzas medias donde estuve sometido a una educación tradicional. Esta enseñanza basada en el aprendizaje memorístico creaba una situación de artificialidad en la práctica educativa propiciada por la figura autoritaria del maestro y por la distancia que éste establecía con sus alumnos y alumnas, generando miedo y tensión sobretodo mediante controles y exámenes. En este ambiente el alumno estudia ante la presión ejercida por el profesor y el miedo a suspender el examen. Afortunadamente esta situación está cambiando aunque no tan rápido como a todos nos gustaría.

El profesor o la profesora es la persona que propicia las condiciones necesarias para el buen funcionamiento del grupo y el aprendizaje de los estudiantes. Para eso es necesario la comunicación con el profesorado y con todos aquellos agentes educativos involucrados en la formación”.

Olatz Martínez:

“Todos estos profesores que les gusta enseñar, que disfrutan con ello, crean una buena relación con los alumnos y estoy segura de que si hablase con mis compañeros y compañeras sobre esto recordarían los mismos profesores que yo, porque en su momento ellos mostraron interés por nosotros. Cuanto más pienso en este tema, más me doy cuenta de que la mejor educación es la que se basa en el “tú a tú”. Es la educación en la que nadie es más que nadie, todos estamos a un mismo nivel en el que enseñamos y aprendemos porque aprender es una necesidad para formar nuestra experiencia. A este respecto quiero destacar el análisis que Paulo Freire hace en “La educación como práctica de libertad”:

- 1.- Que nadie educa a nadie.
- 2.- Que tampoco nadie se educa solo.
- 3.- Que los hombres y las mujeres se educan entre sí, mediatizados por el mundo.

Desde mi experiencia como alumna he dividido mi vida en tres etapas que considero las más importantes. La primera comienza en el instante que nacemos. Podemos decir que esta etapa no acaba nunca debido a que la vida es un constante aprendizaje. Sin embargo, yo quiero centrarme en esos primeros años de vida en los que aprendemos muy rápido y sin apenas darnos cuenta. Es aquí donde la relación padres-hijos se convierte simultáneamente en una relación profesores-alumnos. El otro día con motivo de la inauguración del curso escolar leí parte del discurso oficial en el que se hacía alusión a la familia por su compromiso en la educación. Se dirigía a los padres y a las madres, “... ya no son, ante todo y sin lugar a dudas, los primeros y principales educadores...” señalaba el discurso. En esto no tengo ninguna duda porque es cierto que de ellos he aprendido lo que hoy soy. Me han educado lo mejor que han podido y creo que han hecho un buen trabajo, además se han esforzado todo lo posible en darme una buena educación tanto escolar como universitaria.

Los padres te van enseñando sin que te des cuenta, es diferente al colegio, allí sabes lo que vas a estudiar, pero en casa aprendes de forma natural. El aprender en casa es vivir día a día experiencias nuevas. La cosa más básica sencilla para un adulto, es para un niño un paso más en su aprendizaje. Pero para ello hay que ser consciente de que estamos enseñando y aprendiendo. Hay que ponerse a la altura del niño y de la niña para explicarle el por qué de las cosas de forma que lo entienda. Poner un gran empeño en este saber comunicar porque es preciso que haya entendimiento y comunicación entre padres e hijos para que ese aprendizaje resulte sencillo y beneficioso. De pequeño, el esto no es así, o esto está mal, lo oyes montones de veces, pero muchas de ellas sin tener una explicación que te sería muy útil para hacer bien las cosas o para saber cómo se deben hacer.

Esta etapa no acaba mientras tienes relación con tus padres, porque a lo largo de la vida aprendes continuamente de ellos y ellos de ti”.

Myriam Pérez del Olmo:

“Myriam Pérez del Olmo da nire izena. Euskaldun berria naiz eta asko gustatzen zaizkit nire abizenak euskaldunak ez badira ere. Ikaslea naiz, baina ez ikaslea jendeak zentzu orokorrean pentsatzen duen bezala “egunero-ko ikaslea” baizik. Enpresaritzita diplomatura ateratzeko ikasten ari naiz eta EGA lortzea gustatuko litzaidake, baina nire ustez IKASLE hitzak esanahi zabalagoa dauka, ez da bakarrik ikasten ikastoletan, akademieta edo unibertsitateetan, kalean eta etxean ikasten da baita ere. Gauza asko geratzen zaizkigu ikasteko eta baita irakasteko ere. Inoiz ez gara oheratuko gauza berri bat ikasi gabe eta hau izango da beste norbaitek irakatsi digulako”.

Loreto Alonso:

“Nire hezkuntza historia, denena bezala, etxean hasten da. Gurasoei esker ibiltzen, hitz egiten, ondo portatzen,... ikasi nuen, beno batez ere, nire amak irakatsi zidan, nire aita ez zegoelako asko etxean bere lanagatik, oso gutxi ikusten nuen.

Hiru urte nituenean eskolara joaten hasi nintzen, eskola publiko batera, hasieratik ondo hartu nuen eskola joateko beharra, ez nuen problemarik izan, oso pozik joaten nintzen. Oroipen asko daukat, adibidez edukitako irakasleak, beno kurtso hauetan orokorrean onak izaten dira baina nik gogoratzen dut bat niretzako oso berezia izan zena eta beti gogoratuko dudana. Maika zuen izena, oso zuzena zen, beti oihuka zegoen baina halere oso jatorra eta gelan berarekin oso ondo pasatzen nuen: margotzen, abesten, jolastan, ariketak egiten,... beste oroipen on bat zen musika klasea, ume bakoitzak instrumentu bat hartzen genuen (txintxina, marakak, danborra, panderoa,...) eta andereñoak esaten zuen noiz jo behar genuen, ez zen inoiz ondo ateratzen baina oso ondo pasatzen genuen.

Gero OHOn sartzean aurkitu nuen beste irakasle izugarri bat, dena beragan ona zen, beti mendira eramaten gintuen, gauza asko oparitzen zizkigun, gauza bat ondo egiten genuenean zerbait ematen zigun, orduan, denok nahi genuen dena ondo egin”.

Haritz Mendiguren:

“Ikaslearen buruan sarri izan dugu gu hartzaile hutsak garen ideia eta irakaslea emailearena. Ikastola ondorengo institutuko esperientziak eta batez ere irakasle baino laguntzaile modura aritu izanak, ideia hauek horrela ez direla ondoriora eraman naute; izan ere lehen aipatutako disposizio honek, ikaste-irakaste harreman egokia determinatzeko ezinbestekoa dela iruditzen zait. Esan bezala, harremana hau bien artekoa da, bakoitzak bere aldetik bere papera betetzearen ideia, jarrera horren esanahia izango litzateke. Ikasle bezala jarrera hau harkor edo atentzio bat bezala ulertuko nuke, hau da atentzioa sortu beharraren ideia. Hau, noski, esatea bezain erraza ez dela ondo dakigu ikasle izandako eta garen guztiok. Hor sartuko litzateke irakaslearen papera, harremanaren beste partaidea alegia.

Ikasleak bere jarrera sortu behar duen bezala, irakasleak hori lortu egin beharko du, hor tartean, erdibide ideal horretara iristeko biek beharko dutelarik beraien aldetik zerbait jarri irakaslearen erantzunetik hasiz. Jarrera hori gehienetan itzuli da autoritarismo, diziplina edo zurruntasun itxuran. Autoritarismoaren ideiak bultzaturiko desberdintasunerako joerak (irakaslea goian eta ikaslea behean ikustearen imajina adibidez) geroz eta gehiago urruntzen ditu nire ustez osotasun bat osatzen duten bi elementu”.

Arantxa Ugartetxea:

“Hezkuntza munduan bizi izan ditudanak gogoan ditut, baina orain dela gutxi arte bi zatitan bereiztuak ikusten nituen: alde batetik ikasle denbora eta bestetik irakasle garaiak. Bi egoeretan ikastea batez ere izan da nire eginbeharra baina bazirudien bi egoera desberdinak zirela espazio eta denboretan zatituak, batean gehiago jaso egin beharra nuela eta bestean eman. Irakaskuntza transferentzia gisara batez ere bizitzen nuen neure oharmenean. Halako batean bi nortasun hauek bat eginaz nigan bizi direla sentitu dut. Gogo, ikusmira, ikasteko grina, sortzailetasuna eta komunikatze berak bizi dira nigan dauden ikasle eta irakaslearengan.

Hau horrela sentitzea ez da harrigarria, benetan harrigarriena dena da, nik nire aurrean ditudan ikasleek sentipen beraren jabe izan daitezkeela ohartaraztea. Haiengandik egunerokotasunean zenbait gauza ikasi ditut eta beraiek gabe ez dagoela irakaskuntzarik argiago sumatzen ari naiz, hau da: haiek eta ni ezinbestekoak garela hezkuntza bidean. Ikasleen ahotsa entzuteko gogoz bizi naiz, jasan ezinak egiten zaizkit zenbait bilera bizitzen dugun ikasleen presentzia eza edo isiltasunagatik. Pentsatzen dut gauza pilo bat

dituztela esateko baina denbora eta espazioaren falta horretarako nabarmenak dira. Nahiko ohituta gaude irakasle bileretan ikasleen presentzia ez egoteaz, askotan ez zaigula burutik pasa ere egiten ikasleak ezinbestekoak gertatzen direla gure artean, era honetara, erabiltzen dugun pedagogia baztertzailan denok galtzen dugularik.

Benetako autoritate pedagogikoa bien arteko (ikasle-irakasle) harremanetik dator eta eremu hau zainduz lortuko dugu zenbait gehiegikeri alde batetik eta bestetik ezabatzea. Nahitaez gudan bizikidetzen ikasle eta irakaslearen subjektu gara. Eta hau horrela bada geure artean sentitzen dugun begirune ikusmiratsuaren bizipoza, euskal ezagueraren garapen bidean sentitu nahi dugun zerbait da.

Etxekoen jakinduria euskaldunak nire bizi guztian iraun du erreferentzia eta argitasun erara. Ikastetxeetan gutxi ibilitakoak ziren nire gurasoak baina herriminak eragiten zituen jokaera eta erabaki arruntetan. Dagokigun herriaren irakurketa saiatuaren bizikorak izan ziren. Dena dela maisu jator baten inguruan ibilitakoak ziren. Toribio Alzaga irakaslearen argitasuna etxeko elkarrizketetan eta euskal antzerki taldearen ekintzetan txikitandik dastatua naiz. Aita, on Toribio eta Maria Dolores Agirrereren antzez taldekoa baitzen. Guraso arduradun izatearen gogoz eta gizaki guztiek jasaten ditugun mugak pairatuz, egokitu zitzaie egin beharra betetzen saiatu ziren, gehiegi ohartu gabe jasandako gutxietsian herri honen partaide ezinbestekoak zirela. Itxurazko isiltasun haren indar sortzailea gaur egun nik gozatzen dut zenbait eremutan. Nire etxe eta etxekoek,... nolako eragina! Batzuetan eurek ikasten, besteetan nire era berrien miresle, ulertezinak eta uler nahiak, lotura eta askatzaile bizipenak, elkarrizketaren beharra, beldurak eragindako autoritarismoaren ekintzak, maitasunaren samurtasunak, mugak eta hauek gainditzearen gose-egarriak, hunkipen sakonak, botereak ..., gero etorritako eskola guztien ikasle eta irakaslearen oinarri eztabaidagarria eta miresgarria, oroitzapen eta hunkipenez zamaturiko nortasun pertsonalaren bizipen kenezina”.

ESKOLATZEA

Olatz Martínez:

“Con cuatro años fui al colegio Santa Teresa, un colegio religioso, del que no salí hasta los dieciocho años, éste es el comienzo de mi segunda etapa como alumna de la que tengo un gran recuerdo. Con los profesores he tenido una gran relación en general, no he sido una persona que ha dado mucha guerra en el colegio, por lo que no he tenido ningún problema. El que la relación con tus profesores sea buena o mala depende en gran medida de tu comportamiento. Les recuerdo prácticamente a todos. Recuerdo perfectamente a mis dos primeras profesoras, de una guardo todos los trabajos que con ella hice, la otra me enseñó a leer. Es curiosos porque de otros profesores y profesoras que tuve de mayor apenas tengo un recuerdo de ellos. Creo que es cierto que hay personas que dejan huella.

Tengo que decir que para ser un colegio religioso, la mayoría de mis profesores han sido seglares, de lo cual me alegro, la relación alumno-profesor religioso y alumno-profesor seglar, es diferente no sé exactamente cual es el motivo. Cuando eres niña ves a estas personas de forma diferente, no es una relación natural la que mantienes con ellas, no les ves al mismo nivel. Según vas creciendo ves que son personas como tú que cometen errores pero el hábito sigue imponiendo respeto y hace que la relación sea mas fría. Otra cosa que llama la atención es el momento en el que el colegio se hizo mixto, esto fue un duro cambio principalmente para las monjas, digo esto porque ellas no tenían experiencia. Las Teresianas durante años habían tenido colegios exclusivamente femeninos. Hoy en día eso ha cambiado mucho incluso en algunas clases hay más chicos que chicas, pero a mí me tocó ese período de transición, de aprendizaje, por supuesto para las monjas porque para nosotros era algo normal estudiar todos juntos, para ellas fue duro, tenían delante un grupo de chicos y chicas, niños al principio y adolescentes después que requerían una educación conjunta, algo a lo que tuvieron que adaptarse. Creo que tuve la suerte de pertenecer a esa primera clase mixta porque de alguna forma fue diferente y por supuesto especial en la que aprendimos a respetarnos. Durante EGB he tenido buenos profesores, pero recuerdo a uno que vino a sustituir a la profesora de euskara, nos cambió un poco los esquemas porque sus clases eran diferentes, mucho mas interesantes, más amenas, nos ponía vídeos, hacíamos juegos, conectó muy bien con nosotros y nosotros con él, se veía que disfrutaba enseñando y nos hacía poner más interés.

En BUP la cosa cambia, eres mayor y puedes hablar más de tú a tú con los profesores y profesoras, pero es a partir de aquí también donde ves si un profesor es verdaderamente bueno. Para mi es bueno aquel que comunica, que anima, que conecta, que está a la altura, que participa, que muestra interés por ti como persona y como alumna, y sobretodo que promueve una relación directa y recíproca con el alumno o la alumna. Hay profesores que se acomodan mucho en su trabajo, llevan muchos años dando la misma materia en un mismo colegio y eso hace que ellos mismos pierdan el interés en lo que enseñan y de esa forma los alumnos no tienen motivación para aprender. Creo que una profesora debe motivar constantemente a su alumna y desde luego mantener una relación mucho más estrecha con el alumno o la alumna, porque hay algunos y algunas que parecen inaccesibles. Tuve una profesora que daba Física, Química y Matemáticas. Como licenciada en Física y sus conocimientos de Química y Matemáticas era muy buena, sin embargo como profesora no lo era tanto. Daba clase para los cuatro o cinco que captaban a la primera explicación el resto nos veíamos en septiembre. Lo único que consiguen estos profesores es que pierdas el poco interés que puedas tener por la asignatura.

Quiero abrir un paréntesis para comentar, que es en el colegio donde las amistades comienzan a ser una parte importante de tu vida porque es mucho lo que aprendes de ellas al ser muchas veces más fácil hablar con una amiga o amigo que con el profesor. Debido a que lo ves como un igual, tienes más confianza y te comprende”.

Myriam Pérez del Olmo:

“Haur eskolan hasi nintzenetik euskararekin harremanetan egon naiz; oraindik gogora dezaket nola nire ikaskideekin lurrean eserita egoten nintzen borobilean eta Pintto-Pintto kantatzen. Gero Gabonetan irakatsi zizkiguten Olentzero kantak. Gauza gehiago ere egiten genituen, baina, nire lehenengo hitzak, zenbakiak, marrazkiak e.a. gaztelaniaz izan ziren, klase guztietan zerbait euskaraz egin arren. Eskolan euskara beste ikasgai arrunt bat bezala ematen ziguten, hiru ordu astero bakarrik, eta ez zen nahikoa niretzat, orduan nire amak auzoko euskaltegian apuntatu gintuen (bi anai eta ni). Institutuan hasi ziren gauzak aldatzen, jadanik ez da hain erraza bikain edo oso ongi ateratzea, okerrenea zen gainera irakasleek beldurtzen gintuztela. Azkenean eta beti bezala, dena gainditu nuen, baita selektibitate ere.

Orain dela hogeita lau urte (jaino gabe nengoan) nire ama ikastola batera joan zen nire neba apuntatzera. Ikastolakoek nire amari galdetu zioten ea bera eta bere senarra nongoak ziren. Nire amak erantzun zien bera Valladolidekoa zela eta bere senarra La Coruñakoa, baina urte asko zeramatela hemen Donostian. Nire amak esandakoari ez zioten jaramonik egin eta ezezko borobila jaso zuen; ezinezkoa zela nire neba han apuntatzea, gero etxera itzultzean ezin izango zuelako euskara praktikatu. Erremediorik gabe, nire amak oso triste nire neba eraman behar izan zuen fraide eskola batera eta ni jaino nintzenean nire nebaren pauso berberak jarraitu behar izan nituen”.

Loreto Alonso:

“OHOk 4. kurtsoan Matxun ezagutu nuen, irakasle berria zen eskolan, baina laster lortu zuen gure konfiantza. Ez zen irakasle tipiko bat, bere metodoak oso desberdinak ziren. Ideia desberdinak zeuzkan, ez zuen nahi bakarrik liburukoa egin normaletik ateratzen zen eta klaseak oso motzak eta dibertigarriak egiten ziren naiz eta asko ikasi ere bai. Bosgarren kurtsoan, frantseseko eta matematikako irakasleak gorrotatzen nituen, jasanezinak ziren. Frantseseko klasean asko aspertzen nintzen, beti gauza bera egiten, eta matematikakoan ez nintzen ezertaz enteratzen, oso gaizki azaltzen zituelako gauzak, irakasle txarra zen.

Seigarren kurtsoan ezagutu nuen nik uste dut OHOn izan dudana irakasle onena, euskarakoa, Ernesto. Badaude irakasle asko bakarrik arduratzen direnak bere gaiak eta gero agur, hau ez, gutaz arduratzen zen beti eta beste lagun bat bezala zen. Euskararekin ez zuen betikoa egiten, teoria pixka bat eman, ariketak eta kito, ez, jokoak prestatzen zituen, egunkariak ekartzen zituen gelara, taldeka lana egiten genuen. Atsedendaldi bat zen bere klasea, beti bere zain egoten ginen oso ondo pasatzen genuelako, landareak ere bagenituen klasean eta denboraldi batean hamsterrak ere izan genituen. Zerbait azaltzen zuenean, denak arretaz entzuten genion, ariketak egiterakoan elkartzen ginen eta musika jartzen zuen, oso giro jatorra zegoen bere gelan.

Azkenean bukatu nuen OHoko etapa eta erabaki behar izan nuen nora joan ikasketak jarraitzera. Asko pentsatu eta gero “La Asunción”era joatea erabaki nuen, eta orain galdetzen diot nire buruari zergatik joan nintzen eskola horretara eta ez institutu batera, beno uste dut betikoa izan zela: laguna eta nire auzoko institutuko jendea ez zitzaidalako asko gustatzen. Hasi nintzen “La Asunción”en eta dena arraroa egiten zitzaidan. Oso gogorra egin zitzaidan 1go kurtsoa, berehala egin nituen lagun berriak baina irakasleekin ez nintzen moldatzen. Horretaz gainera lekaikeen eskola zen eta beraz oso hertsia, ohitura arraroak, adibidez goizero gelan sartzean bozgorailuetatik entzuten zen eguneroko otoitza, denborarekin normal hartzen nuena. Mota guztietako irakasleak daude, baina orokorki ez dira oso onak. Euskarazko irakaslea ona zen baina beti gauza bera egiten genuen, ariketak eta ariketak, teoria asko, eta azterketetan materia asko sartzen zen.

BBBko kurtsoan gauzak okertzen hasi ziren pixka bat alferra naizelako baina beno gelakoak oso lagun onak ginen eta azkenean eskola uzteak pena handia eman zidan. Dena dela orduan hasten zen askatasun bidea. Kurtsoa gainditu eta eskola edo kartzela horretatik atera nintzen. Nire auzoko institutua joan nintzen, jende asko ezagutzen nuen eta oso ondo hasi nintzen DBHko 1go mailan 20 ginen gelan horregatik errazago zen zerbait galdetzea edo zalantzak agertzea. Aldaketa izugarria izan zen niretzat, bai irakasleen aldetik eta baita ere zeukaten irakasteko moduagatik, orokorki oso onak. Euskarako klasean ez genuen asko egiten, adar jotze bat zen, baina niri berdin zitzaidan arratsaldero euskaltegia joan behar nuelako. Azkenean kurtsoa bukatu nuen irakasleek emandako bultzadari esker eta aldi berean bukatu ziren ingeleseko akademia eta euskaltegia. Gogoz nengoen oso gogorra zelako eskolatik aterata gero gainera ingelesera eta euskaltegia joan beharra. Aurten DBHko 2. mailan nago. Oso ondo nago gelan jende jatorrarekin eta gustura, irakasleak oro har ondo daude. Datorren hilabetean hasiko naiz euskaltegian eta ingelesean, orain gogoz nago.

Euskara nire inguruan beti eduki dudana zerbait da, zerbait maitatua eta irrikatua, baina zoritxarrez zerbait hau oso urrunetik begiratu behar izan dut. Hau dena txikitzen hasten da ikastola batean gurasoak ni ez sartzean. Gero erru hau konpontzen saiatu gara, baina garai hartan klase partikularrak edukitzearen aukera bakarra izan nuen. Nire ahizparen lagun batek eman zizkidan klaseak, egunero ordubete. Hau esan eta gero, iruditu daiteke nire gurasoak diktadore hutsak direla eta ezin dela eurekin hitz egin, baina guztiz kontrakoa da, beti izan ditut hor, nire ondoan, ni laguntzeko prest eta badakit hitz egin dezakedala nahi dudanari buruz. Idatz lan hau egin aurretik, haien historia entzun nahi izan dut, eta berriro galdetu diet zeintzuk izan ziren arrazoiak ikastola batean ez sartzeko.

Badirudi orain azaldu nahi dizkidatela eta eman dizkidaten arrazoiak, nire gurasoak hobeto ulertzeko, oso lagungarriak aurkitu ditut:

- 1) Arrazoi politikoak. Ez zuten nahi nire buruan arrazoi politikoren eragina ikusi.

- 2) Ikastoletako irakasleen eza. Garaian bizilagun batek naiz eta ikasketarik ez eduki, nola euskara bazekien, ikastolan lana aurkitu zuen.
- 3) Dirua (arrazoirik nagusiena). Nik bi urte nituela aita lanik gabe geratu zen (nik hau ez nekien) eta une haietan ikastolak pribatuak zirenez ezin zuten ordaindu eta eskola publikora joan nintzen.

Nire amak “La Asunción”era joatea nahi zuen eta nire aitak “Virgen del Carmen”era “B” ereduak zeukatelako, baina azkenean leku berean geratu nintzen. Amak eskola hau nahi zuen erlijiosoa zelako eta nire ahizpak leku horretara joan zirelako, aitari ordea erlijio arazoa berdin zitzaion eta nahiago zuen beste eskola bat baina “B” ereduarekin. Nik nahiago dut “A” ereduak, ezagutzen ditudan “B” eredukoek euskaraz ez dakitelako eta gramatika aldeetik guk baino gutxiago, horretarako!...

Agian arrazoi guztiak ez dira onak, edo agian bai, baina denborarekin eta ez dudanez beste erremediorik, nire egoera onartzen ikasten ari naiz, gurasoek ez errotzearren betiko galderarekin. Baina gauza bat garbi dut, seme alabak izaten badituzte ez diet gauza bera egingo, eta nire lekuan jartzen bazarete ulertuko didazue, nirekin gertatutakoa oso larria da, nire herriko kultura zati bat lapurtu didate. Baina gaur egun denok ahalegintzen gara eurek eta ni euskara gureganatzen. Ez dut trebetasunik euskaraz hitz egiteko baina praktikarekin egunen batean lortuko dut”.

Haritz Mendiguren:

“Nire bizitza akademikoaren hastapen ofiziala, euskal kultura erreprimitu baten ondorengo loraldi garai itxaropentsu batean eman zela esan daiteke. Honela, kultura askatasun baten lehenetariko fruituak bezala kontsideratuak izan gaitzake, hein batean, ikastolako umeok. Honekin esan nahi dudana zera da, neuk jasotako hezkuntzak, positibo eta itxaropentsua zen ilusio edo behar bategatik bultzaturik zegoela, ezin daitekeelarik kontsideratu ohiko sisteman funtsatutakoa. Izan ere, ahul, elikatu beharreko hizkuntza eta kultura batek lotzen gintuen.

Uste honetaz, noski, ni ez nintzen ohartzen ikastolan nenbilenean, izan ere, sarri entzuten baitira nagusien oroitzen txar eta ahaztezinak, tradizioan ainguratuta zeuden barnetegietako bizitza hotz eta zurrunaz gogoratzean esaterako. Hauek sistema bakoitzaren gain eraikitako bi ikuspegi desberdinen adibide izan daitezke, kultura iratzartu berri bat bezala funtsatua bata, tradizioan erroturik bestea. Autoritarioa eta diziplinatsua bezala, askotan sistema zein forma zapaltzaileak, pedagogikoak bezala kontsideratu izanaren ideien erroetatik at, hezitakoa izan naizela uste dut.

Sentipen hauen inguruan ondorioztatu dezakedana honako hau da, hezkuntza sistema baten ikuspegi edo izaerak, izugarri mugatu dezakeela bertako partaidea. Honela, pertsonaren gain ezarritako zenbait metodoen bideratzeak nola baldintzatzen duen ez soilik emaitza akademikoak baizik

honekiko kontrapuntu bezala, agian zer galdu izan ote duten euren aldetik, zer sentitze eta azken finean, bizitzari uko egin behar izan ote dioten sistema hori dela medio. Sistemaren kutsu baldintzatzaile eta eraginkorraz oharturik (nik zorionez negatiboki nabaritu izan ez dudana), gizabanakoaren aldea erabat garrantzitsua eta absolutuki erabakigarria dela kontsideratzen dut. Guztiak desberdinak garelako eta ikaskuntza harreman bat delako hain zuzen ere (har-eman), ikasle eta irakaslearen arteko erlazio horretan aurkitzen da nire ustez forma. Biei dagokien erdibide bat aurkitu beharraren garrantziaz ohartzea, esentzialki disposizio edo jarrera batean oinarritu beharraren kontzientzia izatea”.

Arantxa Ugartetxea:

“Gaztetxo eta gazte denborako hitz kulturala zen kolegioa, hitz hau gizarte baten adierazgarri eta nolabaiteko boterearen bizipen soziala zen. Irakasleen botere leku. Gaztelar kultur boterearena hain zuzen, ikasleak ezjakinakin ginen, eta jakinduriaren iturrietara inguratuz, ezagueraren jabe, poliki-poliki egiten ginen. Ezjakin haren barruan, euskarak eta dagokion kulturak ez zuen lekurik, ikasle euskaldunen jakinduriak, euskal kultura eremuan, irakasle izateko gaitasuna zeukan zenbait kasutan, baina ez, han irakaslea mota batekoa zen bakarrik eta besteok isilduak ginen. Gelako isiltasuna, mugiezina, eta obediencia ziren diziplina on baten bidean ibiltzea. Sistema berak auke-ratutako liburu, esperientzia e.a. guztiak bakarrik zuten baliotasuna, hauek denak, ikasgela barruan pedagogia autoritarioaren ildoan barreiatzen zirelarik, azken batean, ikasle eta irakasle isilduak izanaz. Dena dela, sistema harekin adostasunean bizitzen zirela ematen zuten nik ezagutu izandako irakasleak. Etxeko mundu kultural afektiboaren apurketa, ikasgela barruan, bizitutako ikaslea dago nigan. Sei urterekin gaztelaniazko mundu batera hurbilduz, euskararen existentzia etxeko girora murriztua geratu zen. Eta etxekoek, gu (nire ahizpa eta ni), gaztelar mundu kultural honetara bultzatu gintuzten, zerbait izatekotan gerora begira, aukera bakarraren bidetik, kultura eta jakin minaren egarriz.

Urteetan kultura eta gaztelania identifikaturik egon dira nigan, eta beharrez txertaturiko hizkuntzak ateak ere zabaldu dizkit. Bitartean ... hitz euskalduna bere isiltasunean tinko, kanporatzeko indar gabe, espaziorik gabe etxe eta etxekoengandik kanpo urte mordoan. Nigan dagoen euskal hitza miresten dut, bere isiltasun iraunkorraren erakartasunak liluratzen nau, nire ahalmen pertsonalaren ager leku hau hunkipenez zamaturik bizi nahi dut. Ahaleginen bidetik ibiliz, nigan dauden ikasle eta irakasle, euskara eta gaztelania, arteko elkarriketa saiatuan dabilta, batzuetan gehiago irakasle batean eta bestetan ikasle edo alderantziz.

Urte haietako bizipen gozoena ikasgelako lagunartea da. Lagunak kondizio gabekoak ziren niretzat, egoera desorekatu hura samurtzen zidaten, geure artean gaztelarazko hitzek balio pertsonala bereganatzen zuten, konplizitatea, ikusmira, limiteak gainditzea, beldurra, arriskua, maitasuna, kidesasuna eta ezagueraren bidean elkar argitze eta laguntza aberasgarriaren leku

izan ziren. Ikasle bizipenaren gaztetasuna erdal mundu kulturallean hitz batez adierazi dezaket: lagunak, gaur arte lagun, etxekoan inguruan. Lagunak eta ikasle-irakasleak!, haiei zor diet autoritarismo ezaren gozamena. Kolegioko bidean konplizitate handienak gertatzen ziren, bukaezinak geure arteko elkarriketak, ikasleen artekoak hain zuzen, bata bestearen irakasle errespetagarriak. Ikaslearen ulermenak, irakasleak ez zuen sentsibilitate bat agertzen zuen, hurbilpena, hizkuntza berean mugitzen ginen, eta ikasgaiak elkarrekin gureganatzen genituenean bata besteari lezioa hartuz, irakasle-ikasle paper trukaketan, orduan gaiaren gaintzea ziurtatzen genuen, seguritate bidetik abiatuz. Maiz politika arazoak geure artean eztabaidatzen genituen, euskal izatearen grina eta askatasunaren egarriak, geure arteko elkarriketetan lasaitasun osoz barreiatzen ziren. Benetan gozamenaren leku bihurtu zen lagun arteko denbora aberasgarri eta hezitzaile hura.

Nireganatua izan dudan gaztelaniak izan ditu beste irakasle eta ikasle kulturalak. Hau idazterakoan ozeano eskerga baretsu baten irudia agertzen da nire begien aurrean. Amerikar munduko ikasle-irakasle emozionala naiz. Ezeren bizitzen diren horiengandik limiteen ahalmena ikasi dut: beldurrarekin bizikidetzen, gosea erdibanatzen, heriotzaren magia gaintitzen, hitzaren balorapen erreala dastatzen, mugarik gabeko maitasuna sentitzen eta errespetu ezaren gogortasuna jasaten. Hego Amerikako lurak itzuli dit, nirea ez den kulturaren izate samurra sinpletasun askotarikoaren giroan. Euskal Amerikarra naiz. Ikastetxeko hormak zabaldu ditut, mundu zabaleko ikasle-irakasle izateko bidean nabil.

Dena dela, gogoratzen dut, nola, inprenta arrunt batekin aurrera eta atzera ikasle eta irakasle batzuk ibiltzen ziren, askotan orduz kanpo ere, lan pila egiten “Andre Joakina-enea” izena zuen etxean sartu eta atera, geletan lanean beste batzuek zeuden bitartean. Etxe hartako mugimendua ez zen nolana hiko, “Freinet” zetorkidan burura euskal hizkiak ikusterakoan, ikasle eta irakasleen hitz idatziak ziren, elkarrenganako errespetua adierazten zutenak. Dantza eta antzez taldeak ere bazeuden. Jantzi bereziak, musika euskalduna, Euskal Herriko dantzak, han eta hemen ikerketa lanean. Inauteriak antzezten zituzten herriz-herriz alaitasunaren mezulari gisa, guraso taldea atzetik laguntzen eta txalotzen, herria ikasle eta irakasle bihurtuz. Egoera baten irakurketa pedagogikoa zen. Benetako militantzia herrikoia, eguneratutako pedagogiaren bizipen aberasgarriaren adierazle garai hartako “Landaberri” ikastola (1974-77). Han dastatu nituen pedagogiaren praktika osatuenak (idazkari eta ordezkatzeko lanean), garai honetako irakasleen miresle naiz, haiek dira niretzat bizi izandakoaren testigu ukitu ahal izan ditudanak, izen eta izate haiek nigan daude ikasle eta irakaslearen arteko bizipen zati samurrenean. Hein berean ekonomiaren jokiera eztabaidagarria, elkarriketa eza eta ulertu ezinak dastatu genituen baita ere bolada hartan. Non dauden militantzia eta profesionaltasunaren mugak ez zen ongi argitu eta behin baino gehiagotan lan zoragarri haren estalki bihurtu zen irakasleei sor zitzaizen soldataren eztabaida gogorra.

Baina ikasgelako bizipen emankorrenak niretzako “Andereño” hitzak gordetzen ditu, izen abizeneko andereñoak, aparta, langilea, harreman samurrez irakasten duena eta mugimenduak duen sentsibilitatearen begirale. Garai

batean Getxoko andereñoa izandako profesionalaren gelak, ikusmira eta eza-gueraren jakingura sortu zidan “Axular” ikastolako eskolaurrean lan egín nuen urte haietan (1977-82). Espumazko modulu laukiak, handiak eta kolore ezberdinetakoak hara eta hona erabiltzen zituzten haur txikiak. Egurrezko takoak, beldurgarriak ziruditen baina tresna ezin hobeak bihurtzen ziren bakoitzaren sormenaren bizipenean. Makilak, bata bestearen aurkako oldar-kortasunaren adierazle askotan, botere beldurgarriaren irudia, horregatik eztabaida unetan armairu gainera jasotzen nituen, objektuaren neutraltasunaren adierazgarri zirenez, umeek pertsonak ditugun beste baliabideen bidez arazoa konpondu zezaten: hitzez, keinuz e.a harremanak bideratuz, elkarren artean gertaturiko urruntasun eta hurbiltasunaren mugimendu horretan azken batean, aurkitzen baita dagokigun portaera egokia konponketa bidea jorratzen badugu behintzat.

Margo askotako ehun handiak estalgarri erara, mahai zapi edo jantzi erabileran manipulatzeko zituzten. Nire mahia oso preziatua zen, gehienetan babes leku bezala erabilia, mahai azpian kokaturik, elkarrizketa isilean igarotzen zituzten makina konplizitate samurrak. Kaxak, sokak, ipuinak, zenbait jostailu pertsonalak, panpinak bere betiko leku afektiboan, pelutxeak,... marrazkiak e.a. Biziaren eredu grafikoa zen gela hura. Han ikusitako eraikuntzak, irudiak, eztabaidak, harremanak, tresnen erabilpena, nahi eta ezinak, gorputzaren jira birak, indar neurtuak, alaitasuna eta tristurak, beldurrak, arriskuak, kasketaldiak, kidesun lagungarriak eta hitzez osatutako zenbait esaldien bitartez, eguneko antolaketa akademikora bideratzen zen dinamika hura. Gauzak bildu eta bere lekuan jaso ondoren, borobilean eserita lurtean, mila adierazpenen une bateratzaile bihurtzen zen elkarrizketa hura, erabilitako eta sentitutako eza-gueraren jabe egiten saiatzen ginen bitartean.

Ikasle eta irakasle inguruan ikastolako junta jarriko nuke. Pertsona saiatuak, irekiak, argiak eta aurrerakoiak. Gogoan dut baita ere ikastola honetako akonfesionaltasuna erabakiaren une berezia batzar nagusiaren barruan. Erljioari ere mugak zabaldu genizkion edo hobe esanda mugarik gabeko jainkotasunaren bizipenak, familia eta bakoitzaren baitan askatasun osoz bizitzeko eremua garbiago eta zabalagoa geratzearen erabakia izan zen hura gehiengoan iritzi. Ikastolako irakasle eta ikasleen kidesuna, egoera pozgarri eta baita ere delikatueta dastatu izan dudana pertsona naiz”.

UNIBERTSITATEA

Enrique Pablos:

“La universidad de hoy sigue utilizando el método tradicional camuflado en los apuntes dictados por el profesor o aprendidos y después soltados de carrerilla. A los alumnos no nos queda mas opción que coger apuntes, elaborar nuestro propio método de estudio (porque nadie nos ha enseñado nunca) y jugárnoslo todo a una carta en el examen. Lógicamente los resultados son muy bajos en cuanto al aprendizaje realizado puesto que estudiamos para aprobar un examen entre muchos y lo aprendido se olvida una vez

conseguido el objetivo. En mi opinión de esta manera lo único que se consigue es perder el tiempo, esa por lo menos es la sensación que se me queda muchas veces al salir de la universidad. Solamente en algunas asignaturas y no en todas las carreras los alumnos podemos gozar de un método práctico realizando trabajos en grupo (recogida de información, aportación de opiniones, debates para llegar a acuerdos etc.).

También las exposiciones nos permiten realizar un aprendizaje real y duradero a través de la elaboración personal o en grupo de una exposición clara y ordenada donde la finalidad es que los demás aprendan, la condición mínima es que el expositor domine la materia que va a exponer, esto le lleva a un aprendizaje directo de lo que expone. Otro punto importante son las prácticas, es donde verdaderamente aprendes, donde te das cuenta de si lo que estás estudiando es lo tuyo o no. Para mí, debería ampliarse el tiempo de prácticas y realizarlas a lo largo de todos los cursos, sobretudo el primer año no el último. Esto nos ayudaría a seguir estudiando con mas motivación o a buscar unos estudios mas apropiados.

Las relaciones mantenidas entre profesores y alumnos son también muy importantes para el rendimiento del alumno. Un profesor autoritario, severo, exigente y distante con los alumnos y alumnas puede generar miedo, angustia y desesperación por la asignatura pudiendo llegar a abandonarla. En cambio una profesora o profesor que ayuda, apoya, escucha y reconoce las mejoras o los éxitos de sus alumnos y alumnas genera en el aula un clima de trabajo y respeto. A partir de aquí el alumno desarrolla interés, esfuerzo, gusto por hacer las cosas bien etc. que se refleja directamente en su rendimiento y aprendizaje. En mi opinión el principal problema que tiene la universidad es que el alumno estudia pero no aprende, así es como nos podemos encontrar con licenciados que no está capacitados realmente para desarrollar su trabajo, quizás por esta razón muchos empresarios prefieren alumnos y alumnas de FP en sus empresas. En mi opinión el plan educativo actual necesita una renovación urgente puesto que nos genera muchas dificultades añadidas”.

Olatz Martínez:

“La universidad es un gran cambio. Pasas de un centro en el que eres alguien concreto con nombre y apellidos, en el que has participado, han seguido muy de cerca tu trayectoria, tanto personal como educativa, a un lugar en el que eres una mas simplemente, no hay esa relación de cercanía que puede haber en el colegio. Creo que hasta que no estás en la universidad no eres consciente del cambio que supone. Es donde empiezas a verte como un adulto, donde la responsabilidad cobra más sentido que nunca. Si quieres puedes pasar completamente desapercibido. Mi relación con el profesorado ha sido más bien poca y esto es debido a que muchas asignaturas sólo se basan en la conferencia que te da el profesor en clase. Estas son las clases más aburridas, el profesor o profesora se sienta en la silla y suelta la charla, lo único que consiguen es que por muy interesante que sea el tema resulte monótono y aburrido.

Sin embargo, también me he encontrado con buenos profesores, algunos sin hacer nada especial sólo con la forma de hablar de contar las cosas con claridad y de forma amena hacen que te intereses y prestes mayor atención. Otros hacen que te enganches con unas clases originales, más prácticas con trabajos concretos como cuando sacábamos un periódico todas las semanas”.

Myriam Pérez del Olmo:

“Unibertsitatera joan nintzenean aldaketa izugarria nabaritu nuen. Dena geure kasa moldatu behar genuen: apunte onak lortu, eskemak prestatu, lanak egin azterketak gainditzeko eta garrantzitsuena, ikasten hasi. Nahiz eta denean saiatu lan pila bat kostatzen zitzaidan azterketak gainditzea. Esaten da unibertsitatean irakasleek ez dituztela ezagutzen ikasleak, ez dela garrantzitsua klasea joatea gero apunteak lortzen badituzu, geure kabuz ibiltzen garela eta horrelako gauzak, baina ez da egia, garrantzitsua delako klasea joatea, irakaslea ezagutzea eta hark gu ere bai. Zentro hauetan ikus daiteke tratamendu oso desberdina. Errazagoa da karrera euskaraz egiten dutenentzat. Erdaraz egiten dugunontzat oztopo gehiago daude, askoz ere gehiago izateagatik. Adibidez euskaraz ikasten dutenek azterketen datak aldatzea lortzen dute; baina hau aldatuko da, zeren eta, gero eta jende gehiagok euskaraz ikasten duelako karrera. Horien artean egon nahi nuke nik baina ez bakarrik kutunkeriagatik”.

Arantxa Ugartetxea:

“Unibertsitate hitzak egoera askotarikoa dakarkit burura, ikasgelako oholntza da niretzat irudi magikoa eta erreferentzia, berak adierazten duen espazioaren banaketagatik, goian eta behean kokatzen gaitu. Badirudi oholntza gaina, irakaslearen leku boteretsua dela, edo horrela bizitutakoak gara, ikasgela guztia menperatzen da eta ikasle guztiek irakaslea ikusteko aukera daukate baita ere. Gehienetan bere ondoan arbela dago, hitz idatziaren ager leku bikaina, asko maite dut, denei atsegin zaigun gauza da arbela arrastoz margotzea. Goian behean, igo jaitsi, gainean azpian, hemen edo han, mugimendurako aukera ezin hobea ematen digu oholntzak, irakasle eta ikasleek espazio berean edo espazio banatuetan kokatzea da arazoa. Nire ametsetako unibertsitatean oholntzaren lekua ikasleek erabiltzea zoragarria irudituko litzaidake, ikaslea irakaslea den une askotan. Esan nahi dut, espazio berezi hau, leku aukera bezala erabiltzea amesten dudan zerbait dela, gelako gelditasun hori gaindituz eta gorputzarekin buruan bizitzen ditugun mugimendu, joan etorri, igo eta jaitsi, askatasun dinamikoan egokituz.

Tarima gainera irakaslea jaitsi eta ikaslearengana hurbiltzen denean, ikasgela osoak une eta puntu hartara biratzen du gorputza, begiek leku konkretu hartara begiratzen dutelarik, hurbiltasun adierazle unea da, dabilkigun gaia elkarrekin bizitzeko une aproposa. Irakaslea ikaslearengana inguratzearen mugimendua ezaguna dugu baina ikaslea oholntzara inguratzearena ikas-

taro unean irakaslearen ikuspegiarekin bat egin nahian edo ezadostasuna agertu nahirik, ez da arrunta, eta hau da nik amesten dudana portaera bat. Tarimaren harreman banaketa gairak nahian nabil, oholtza bientzako aukera izan dadin ikasgelako dinamika barruan, ezaguerak daraman mugimenduaren adierazle bikaina izan daitekeenez. Irakaslearen agerpena, ikasleek osatutako adierazaldiekin, gaiaren ezaguerarako ezinbestekoa da, bien arteko dinamika didaktikoan bata besteari hurbilpen eta urrundu mugimenduaren beharrez egiten den bidea hain zuzen, gaia objektu esanguratsua izanaz.

Irakaslea goian eta ikaslea behean bere ikasmahaian eserita eta geldik, barneratuta daukagun irudia da, eta hau kontutan edukiz ikaslea tarima gainera zerbaitetara igotzen denean, noraezean aurkitzen da askotan, hitz gabe geratzen da edo irten biderik ikusten ez duela, edo alderantziz dakienaren jabe eta ziurtasun bidean kokatzen da, berak duenaren baieztapen bizipenaren ildoan indartu egiten ditu ezaguerari buruz eginiko aurkikuntzak gela osoaren babespean. Azken honetara iristea irakaskuntzaren zoragarritasuna dastatzea da, inoiz ahazten den bizipena. Gudan dagoen ikasle-irakaslearen bizipen bateratua.

Bestaldetik, arbelaren eragina, berak duen didaktikotasunagatik, pertsonak dugun hitz idatzi eta zenbaiten irudi eta marrazkiren agerleku zabal eta muralean erabiltzeko aukera ezin hobea bihurtzen da. Arbelean idaztea edo marraztea denei izugarri atsegin zaigun gauza da askotan eta adierazlekuenez askatasunez erabiltzeak ematen dio benetako bizitza. Ikusmenaren gozamen espazio fisikora garamatza, egin eta ezabatzeko aukera ematen digu jostailu atseginaren erara. Goitik beherako portaera (bertikaltasuna) lantzen du eta bakoitzak idatzi edo marraztutakoa ikusterakoan, objektibotasunez, egindakoa hobeto aztertzeko aukera ematen digu baita ere. Ezaguera gureganatze bidean baieztapen eta askatasunaren arrasto bizidunaren leku dugu arbela.

Ikas mahiak eta irakasle mahiaren arteko erlazioak oso gogoko ditut. Mahiak espazio pertsonalaren adierazpen gertatzen dira, eta norbanako honen barruan irakaslearen mahiak, banatua, leku berezian ipinia, ezaguerearen jakintasunean bide gehiagoren ezagutzailea dela adierazten du. Ezaguerearen gureganatzea bakoitzaren nortasun pertsonalaren baitan egiten den zerbaitenez saiakera pertsonala ezinbestekoa da. Leku banaketa eta mugatze honek ez du nahi esan mahia batetik besterako iraganean ikasten ez denik. Ikasle bezala badakigu noiz aulkitik at egiten dugun beste dimentsio unibertsalago batera zenbait ezaguera agerpenaren aurrean. Tentsio bat da urrunago begiratzera garamatzana mugatutako espaziotik kanpo aurkikuntzaren gozamen ildoan. Eta hau ikas mahai batetik bestera ere gerta daiteke ikasleen artean, eztabaidetan, talde lanetan e.a., bata besteari ikasten dion zenbait une berezietan. Irakasle mahiaren lekuak ere bere mugak galtzen ditu gelako taldearen dinamika barruan, ikasle-irakasle bizipenaren ildoan, azken batean ezaguerearen aurkikuntzan talde osoaren laguntzaz, aurkitutakoaren era berria miresten duelarik eta gureganatze horretan besteen parte hartze ezinbestekoa dastatuz.

Ikasgelako joan etorriak, batetik bestera, oholtza, arbela, mahaiak, idazkera eta abar guztiak, ezaguera mugimenduaren adierazpenak dira. Hauek hitzaren osaketarekin batera gorpuzten dute ezaguerak daraman bidea, bakoitzarengan dagoen jakinduria eta talde osoaren bilakabidea. Mugiezina- ren aurkako espazio eta denborak dira gela barruan igarotakoak, eta ikasgela esaterakoan edozein leku eta denbora bateratuak irakaskuntza eta ikaskuntza bidean, esan nahi dut. Beharturik jasandako geldiuneak jakinduriaren pobrezia besterik ez dute indartzen, eten gabeko ibilbidean gaude, ezagueraren burrundararen arabera goaz aurrera, adierazteko tresna guztiak baliagarriak direlarik. Ezagueraren mugaketan bagabiltza besteei entzun gabe eta egunero- kotasunak ekartzen duen aberastasunari kasurik egin gabe, irakaskuntza eta ikaskuntza ezabatzen ari garela jakin beharrean gaude. Ikasleen isiltasuna jasan ezina egiten zait gela barruan askotan. Nigan dagoen ikasle isilduaren adierazle denez. Eta mugiezinak, zerbaiten debekuaren agerpena direla sumatzen dut. Irakaskuntza eta ikaskuntza espazio-denborak maite ditut, azterketa denborak dira, elkarrekiko adierazpenez beteak, galderaz josiak, arrisku leku, amets espazioak, beldurra gainditze uneak elkarren babespean, hitz batean jakinduriaren aurkikuntzan bizitzen ditugun une bereziak.

Apunteak, laburpenak, fotokopiak eta liburuak, konplizitatez beterik daude. Bakoitzak, edukiaren gureganatze bidean jorratutako pausoak daude prozesu osoaren barruan. Zenbait lagunarteko tarteak, lagunkidetasuna, argitzeak, bata besteari lezioak hartzea, beldur konplizitateak, notak, kurtsoa gainditzea, erruak, garaipenak, lanak e.a. Hauek denak hezkuntzaren eremuan bere leku ezinbestekoa bizitzen dute. Ikasle eta irakasleen esku dago era baikor batean egoera guzti hauek bizikidetzera. Baina denboraren arazoa maiz agertzen den zerbait gertatzen den gauza da. Beti korrika eta behar den lasaitasun eza ezagueraren aurkikuntzan arruntak gertatzen dira askotan. Denboraren pedagogia sortzailea pazientzia eta inpazientiaren arteko jokoan lortzen den zerbait da. Dena dela, denborak ematen digu entzuteko gaitasuna, giroa susmatzeko talismana, besteek non kokaturik dauden jakiteko argitasuna, noiz non eta nola egokitu behar dugun ezaguera jakiteko aukera e.a. Betebe- harreko programek ez dute beraz gauza asko sortzen, gaiaren bizitasuna ikasle eta irakaslearen neurri gabeko harreman aberatsean dago, eta bien artean goaz dagokigun garaiko hezkuntzaren historia garatzen. Hitz batean esanda, eskuartean dabilkigu egun eta biharko euskal unibertsitatea”.

ESANDAKOAK NABARMENDUZ

Laburbildurik hezkuntza munduan bizi izandako ezaugarri aipagarrienak azpimarratzea agerpen honen ondoren interesgarria da, behingoz euskaltegiaren atarian kokatzen gaituelako:

- Familia: geure iritziz hezkuntza bizipenaren oinarria da, bizitzako lehenengo eskola esperimentalak.

- Hezkuntza sistema: ezaugarri hauek azpimarratuak izan dira geure arteko komunikazio eta eztabaidetan:

- Ikasle-irakaslearen arteko harremanak ezinbestekoak dira. Benetako komunikazioaren beharra nabaria da. Ikasi eta irakatsi, eman eta jaso mugimenduak, harrera, atentzioa eta boterearen erabilera banatua eta orekatua eskatzen du.
- Ezaguera transferentzia gisa bizipenaren sentimendua da batez ere orokorra, baina transferentzia honetan profesionaltasuna eta komunikatzeko gaitasuna ezinbestekoak dira.
- Ikasi eta irakatsi, praktikan eratzen eta osatzen doan ezaguera da, horregatik “praktikak” atseginak dira gehienontzat, jakinduriak duen mugimenduaren bilakabidean kokatzen gaitu. Dauden teoriak osatu, baieztatu eta gainditu praktikan egiten dira, esperimintatu dugun teoria berria sortzen dugularik. Mugiezinetik ateratzen gaitu eta hezkuntza transferentzia soilik izatetik transformatzaile izatera darabira.
- Oztupoak: autoritarismoa eta honen ezaugarriak:
 - o Memoria gehiegi erabiltzea.
 - o Ikasle-irakaslearen arteko distantzia.
 - o Azterketa eta kontrolen erabilera desegokia beldurra eta ezina sentituz.
 - o Mugiezintasuna.
 - o Isilik egotea eta isilduak izatea.
 - o Sistemaren aitzakiarekin ezaguerari eginiko zenbait ukapen eta galdera aintzakotzat hartu gabe geratzen dira.

- Hizkuntza: Bi kulturen adierazle diren bi hizkuntzetan bizi dugunak gara hezkuntza sistema barruan. Gaztelania gehiago bizi izandakoak, euskararen hutsunea nabarmentzen dugu, geure kulturaren zati baten falta nabarmena hain zuzen. Euskaraz gehiago bizi izandakoak, euskal kulturaren loraldi garai itxaropentsuaren girokoa dela nabaritzen du. Eta euskararen aldeko erakunde nabarmenena “Ikastola” gertatzen da, dagokion profesional maila, ekonomia eta abertzaletasuna ezaugarri eztabaidagarriak izan dira familia barruan; hezkuntza sistema gainditze bidean eratu eta euskal kulturaren aldekoa.

- Erlijioa: hezkuntza sisteman bizi izandako erlijioaren eraginak, ongi ulertu gabeko eta errealitatetik kanpoko bizipenak dira.

- Historikotasuna: bakoitzaren historia, ofizialki onartua izaten den curriculumaren zati isila edo isildua da. Norbanako hezkuntza zenbait historia pertsonalez zamaturik dago, hauek denak Euskal Herriko hezkuntza historiaren zatiak izanaz.

“TXINGURRI” EUSKALTEGIA

Donostiako Altza-Herrera auzoan kokaturiko Txingurri euskaltegiak ezaugarri bereziak zituen gure garaian, eta hauen erakartasunak eraman gintuen batzuei irakasle gisara eta beste batzuei ikasle bezala matrikulatzera; 1988ko irailean sortu zen bizipen gaztelarra nagusia zen giroan. Erabaki politiko zuzenaren ondorioa da gure euskaltegia, aipatu dugun giroan euskararen bizipoza egunerokotasunean txertatzearen, Belen Otagi, Xabier Romero, Xabier Zabala, Josu Jon Imaz (honi zor diogu Txingurri izena) eta beste gazte batzuen izenak izan ziren hasiera batean oso eza-gunak, gero Arantxa Sarasua eta Arantxa Ugartetxearen eskuetan jarraituz. Ekintza politiko zuzena izan zela esaterakoan, Batzokia, Euskaltegi bihurtu zela esan nahi dut, garaian militantzia politikoa euskararen alde lana egiteko ekintza zehatza izan zelako, auzoari behar zuen laguntza ezinbestekoa eskainiz. Dirurik gabe. Propaganda guk egindako fotokopia batzuk ziren, Larratxo eta Herrera guztia buzoiratuak eta irratira ere joan ginen. Euskaltegiari lotuta Orioko baserri batean udako barnetegia zegoen antolatuta: beraz 20/30 neska-mutil elkartzan ziren hamabost egunetako txandatan, baina hiru urte bakarrik iraun zuen barnetegiko esperientzia honek.

Ezaugarri politikoaz aparte, euskaltegi honek bazuen beste bitxitasun bat: garaian A ereduan zebiltzan ikasleek eta B eredukoek ere, ez zuten leku bat euskara hobeki osatzeko edo denbora gehiago horretara dedikatzeko, eskolatik atera ondoren euskaltegi giroan eta prezio merkean. Hutsune hau era duin eta profesionaltasunez bete du Txingurri euskaltegiak. Euskal txoko berezia askorentzat, etxean eta lagunartean ez dugun giro euskalduna, euskaltegia saiatu baita hurbilago sentiarazten. Eskolatze denboran gertuagotik euskara bizitzen lagundu digu. Etxekotasuna izan da bere ezaugarrienetako bat eta honen barruan adierazi behar dena da, eginbeharrak era orekatuan banatuak izan direla, bai garbitasuna eta zenbait lan euskara irakasten laguntzaile tankerara, ikasleen ardura ere izanaz. Hein berean ikasleei, esku artean dituzten lanei erantzun nahian, bai ingelesa eta beste gaiak ere jorratu izan dira batez ere ostiraletan, nagusiagoak diren ikasleek txikiagoei irakatsiz, era honetara euskararen ikasi eta irakatsiaren inguruan sortutako euskal giroari erantzun baikor eta zabalagoa emanaz. Ikasle eta irakaslearen arteko harreman atseginaren leku izan da Txingurri euskaltegia, praktikan zenbait ikaslek irakasle izateko aukera egunerokotasunean naturaltasun osoz esperimentatuz.

Txingurri euskaltegitik igaro izan diren ikasleak 150 bat izango dira. Bost urtetatik hasi eta eskolatzea bukatu arteko denborakoak salbuespenak izan ezik. Lehenengo hiru urteak pasa eta Arantxa Ugartetxearen eskuetara igaro zen euskaltegiko zuzendaritza pedagogikoa eta hemendik aurrera gertatutakoak (zortzi urtean zehar) batez ere elkartzan gaitu berriro ere gaur egun euskaltegiko ikasle-irakasleak euskararen arazopean, oraingo honetan Eusko Ikaskuntzak duen Hezkuntza sailaren barruan. Bilkura honen arrazoa bakoitzak euskararekin dugun harremanaren ondorioa besterik ez da. Harreman honek ezaugarri bereziak ditu egunerokotasunean

bizituak direnak. Kondizio gabeko adiskidantza bat dago, eten gabeko afekzioa, hurkotasun eta etxekotasuna, hauek denak euskara zalantzan jartzen ez gaituena uzten. Euskararengandik gutxi edo gehiago urrundu eta gerturatzuz gabiltza baina eten gabeko mugimendu honetan, euskararen gureganatze prozesua bizitzen dugu, inoiz bukatzen ez den tirabira bat da. Horregatik denbora eta espazio berean ibilitakoak euskara dela medio, behin eta berriz elkartzen gara gure hizkuntza goraiatu eta onbideratzeko eguneratuak izan diren zenbait giro eta bizipen ezberdinetan, bera bilakatzeko dugun neurrian egungo bizimoduan, norbanakoa ere berritzen doalako eten gabeko euskal bizipenean.

EUSKARAREKIKO GRINA

Euskal hizkuntzarekin dugun harremanean ezaugarri bat oso nabaria da: grina. Euskaraz bizitzeko grina. Euskaraz hitz egiteko grina. Nahi eta ezinaren adierazle zenbait kasutan, itxaropen eta ahaleginez osatu izan dugun ditxosozko grina. Gizarte mailan bizi dugun bi hizkuntzen desoreka boteretsuak garamatza euskara barra-barra erabiltzearen ahaleginetara, gaztelania barra-barra erabiltzen dugun bezala. Inongo hizkuntza menpetasunik gabeko gizartean bizi nahi dugu, biak gureak baitira. Grina hau nolabaiteko edo ahalegin batera lotuta doa zenbait kasutan, historikoki gertatu izan diren debekuak direla tartean. Berreskuratzen ari gara euskara geure gizarte historikoan, horregatik berarekin ditugun harremanak, familia, lagunak e.a. ukitzen ditu eta neurri honetan euskaltegia erantzun historikoa gertatzen da. Euskara ezin izan dugunok behar bezala landu, egun euskaltegiak aukera bat gehiago ematen digu beste batzuen artean.

Euskararekiko harreman ezkorak ere gertatzen dira geure artean hezkuntza programazioan biziz inposatutako euskara, gehi zailtasuna eta nekezia gaia gaintzeko. Honek egin du euskara materia gorrotagarria bihurtzea zenbait eta zenbait kasutan. Zaindu gabeko irakaskuntzaren ondorioak dira gehi kontrako motibapen familiarak e.a. Gaizki kokatu izan den gaia askotan da euskara, erreferentzi historikorik gabe aurkeztua, sustrai gabea, inongo loturarik bizitzarekin aurkitzen ez diotena eta oztopo bezala bizi dutenek ez dira gutxi geure gizartean. Terapia gisara bizi behar dira kasu hauetan euskarazko klaseak, harreman egokien bidez baikortasunera bideratuz poliki-poliki horrelako jarrerak, azken batean euskara gauza normala eta hurbilagoa gerta dadin eta beste zenbait gauza eta gai bezala gureganatua. Euskararen zailtasuna argudio arrunta da geure artean, gehiegi gureganatu dugun zerbait da zailtasun hori, gaintzi ezina dirudi. Horregatik pedagogia baikor baten giroan, bakoitza gai garelako euskara menderatzeko, egin behar den lana da hezkuntza eremuan.

ZERK ERAKARTZEN GAITU “TXINGURRI” EUSKALTEGIRA?

Erantzunaren aniztasunak giro ezberdinetako motibapenak aztertzerazaramatza.

Familiarrak:

Gehienetan gurasoak daude ikasle bakoitzaren matrikulazioaren atzean. Eskolatzeko urteak dira, euskara ikasi beharrezko gaia da hezkuntza sistema barruan eta ikasgaia gainditzeko euskaltegia lagungarria dela ikusten dute. Gurasoek bere garaian eduki ez zuten aukera berri bat da, eta ez dute nahi seme-alabek euskara jakin gabe geratzerik. Euskal gizartean bizitzeko euskara jakitearen premia, mugitzen diren zenbait eremutan, nabaritzen dute eta herri honen langintzan munduko eta kulturaren partaide era osatuan izatea beren seme-alabak nahi dute. Euskaltegiko irakasle eta funtzionamenduak konfiantzazkoa dira, seme-alabak ongi zainduak ikusten dituzte eta euskarako notak gora doazela ikusten dutenean lasaitasun giroa nabarmentzen da. Beste aldetik auzoan ez dago mota honetako beste euskaltegirik, gaztetxo eta nerabeentzat gehien bat baita "Txingurri" euskaltegia. Garestia ere ez da merkea baizik.

Eskolarrak:

Ikasle gehiengoak EGB, BUP eta REM eremuetatik etorriak dira A eta B eredukoak edo hobeto esanda, A eredukoak gehiago. Asko euskararen zama ezkorren bizitzagileak. Eskolatzeko programaren barruan bizi duten irakaskuntza desegokiaz hitz egiten dute. Dituzten irakasleen izenak erabiliz hitzetik hortzera, jasan ezinezko irakaskuntza dirudi. Notak gora eta notak behera, ikasgaia gainditzea da arazo larriena. Euskarako irakasleen profesionaltasunaren arabera bizi dute euskararekiko sentitzen duten zailtasuna, irakaslea eta hizkuntza banaezinak dira. Irakaslea da euskara dakiena eta berak egin edo esaten duena garrantzi handikoa da "nire irakasleak esaten du horrela hitz egin edo idatzi behar dela" da esaldi arruntena, giro horretan kokatzen dutelarik euskararekiko ziurtasun pertsonala. Ikasle eta irakasle arteko erlazioan kokatzen dira ezkortasun gehiengoak. Agintekeria eta profesionaltasun kaxkarrean bizi izandako euskarak, bideratze pedagogikoaren beharra du. Gogorkeriaren sentipenak onbideratu behar dira samurtasun eta askeago sentitzen diren euskal giro batean.

Pertsonalak:

Guraso eta familia giroaz aparte, arrazoi pertsonalak ere bakoitzarengan daude, ikasle eta irakasle bakoitzak bereak dituenak hain zuzen. Ikasleak gehiengoak behintzat gaztelar girotik gatorik, gaztelania da gure ama hizkuntza eta komunikaziorako erabiltzen dugun tresna nagusia. Baina bizi garen gizarte euskaldunean aukera askoren gabezia sentitzen dugu. Herri honetakoak izanaz euskaldunak erdizka izango bagina bezala aurkitzen gara. Nongoa naiz?, zein da nire hizkuntza?, zergatik nire lehengusinak euskaraz daki eta nik ez?, zergatik euskaldun batzuk ezin dute gazteleaz hitz egin eta zergatik zailtasunak dituzte ulertuak izateko gaztelania bakarrik erabiltzen den zenbait lekutan?, zergatik daude egoera mugatuak bi hizkuntza eta dagozkien kultura esparruetan? "Euskara hizkuntza bat baino lehenago bizipen bat da"

dio ikasle batek eta jarraitzen du: “autobusean edo beste leku batean, euskaldun batek zerbait esaten badit eta euskaraz erantzuten badiot, bere aurpegia piztu egiten da, poza eta irribarrea agertzen dira askotan, eta hau niretzako oso estimulagarria eta baikorra da, euskaraz bizitzeko poza sortzen dit”.

Heldutasun eta askatasun bidean garatzen goazen arabera, oinarrizko zenbait galderei erantzun bidea aurkitzen goaz, eta bidea jorratze honetan ezinbestekoa gertatzen da azken batean, euskaraz jakitea. Noiz? Norbanakoak bere prozesua darama denboraren zehar errealtate ezberdinei erantzunaz. Baina hori bai! Euskara menderatuko dugun eguna iritsiko da. Bilakabidean zehar une ezkorrak ere badaude euskara jakiteari gogo eta indarra kentzen diotenak, motibapen ezkorrak dira, aurrerantz egiteko oztopoak jartzen dizkigutenak. Hauetako bat eta oso argia guretzat ditzosozko notak dira, euskara gaundiezina denean porrotaren sentimendua sortzen dute eta gaunditze dutenek nahikoa egin dutela uste dute. Ikuspegi eskas horretan bigarren mailan geratzen dira zenbait familia eta gizarteko motibapenak. Pedagogiaz ongi zaindutako irakaskuntzak berreskuratu dezake notak mugatzen duten horizonte euskalduna. Lehenengo eta bat, irakasleen eta ikasleen arteko komunikabidea behar du izan euskarak, bizipenetik estruktura akademikora joan etorri eten gabeak esperimintatuz. Askatasun eta gogoa piztearen aldekoak gehiago gara, notak erabiltzea behartuak izatera baino, bi hizkuntzetan osatua dagoen gizarteko partaideak izan nahi baitugu.

Euskaltegikoak:

Euskaltegiko motibapenak, esparru honetan ibilitako guztien motibapenek osatzen dute, kontutan edukiz lokala eta antolaketaren ardurua EAJ-PNVko militante diren pertsonengan dagoela. Dena dela, aztertze orduan aipamen berezia merezi dute ezinbestekoak diren zehaztasun batzuk:

- Irakasleak. Mota eta maila ezberdinetako irakasleak:
 - Titulu duena: pedagogia arduraduna eta irakaslea batera.
 - Titulu gabeak: laguntzaileak.
 - Ikasleak: laguntzaileak.
 - Denok motibapen berarekin: euskara menderatzea eta dirutxo bat irabaztea.
- Hizkuntza. Hiru hizkuntza bizikidetu dira elkarrekin:
 - Euskara: ordu gehienak eraman dituena landu eta landu.
 - Ingelesa: beharra zutenei lagunduz ordubete edo bi ordu astean gehienez.

- Gaztelania: ikasleen komunikabide ezinbestekoa, zenbait harremanetan onartu eta ongi tratatua.
- Ostiral arratsaldetan, eskolako zenbait gaiei buruz laguntza nahi zuei eskaintzen zitzaien (matematika e.a.).
- Motibapen integratzailea.

- Harremanak. Irakasle, ikasle-irakasle eta ikasleen arteko harreman pertsonalak zaintzen saiatu gara baikortasuna eta konfiantza euskararen inguruan bizi nahian, euskaltegia euskararekiko txoko abegikorra gerta dadin, hau izanaz motibapen nagusia.

Metodoa:

Txingurri euskaltegiko irakasbidearen oinarritzko zentzu pedagogikoa "laguntzaile" izatea da. Batzuek denbora gehiago daramagu euskararen bilakabide honetan baina honek ez digu irakasle edo ikasle bezala dugun boterearen erabiltzaile izateko inongo eskubiderik ematen, geure eginbeharra ongi betetzeko aukera baizik. Zerbitzariak gara. Euskararen aldeko zerbitzariak hain zuzen.

Didaktika:

- Denbora: Egutegi hitzak biribiltzen du denboraren banaketa.
- Ikastaroa: urria eta ekaina bitartekoa.
- Orduetgia: egunero ordubeteko ikastaldia. Eskolatik irten ondoren (batzuk 5etatik 6etara eta besteak 6etatik 7tara).
- Astea: ordubete edo bi ordu (taldearen arabera) ingelesa jorrazteko aukera.
- Ostiraletan: eskolako beste materiak jorrazteko aukera.
- Ikasgela: Ikasle eta irakaslearen arteko harreman bizipenaren leku berezia.
- Mahaiak: Taldez osatuak edo handi bat. Talde lana. Irakasle edo laguntzaileen lekua, argibideak eta kolaborazioa behar den lekuan kokatua.
- Arbela: Izugarri atsegina denontzat, erakartasun handikoa, akademiko-ki eta askatasunez erabilia. Zuzenketa orokorren eta zenbait gogoeten adierazpen leku. Erabiltzerakoan irakaslearen kutsua sentitzeko aukera paregabea ematen diguna. Ispilu tankerara bakoitzaren letra, ongi

eta gaizki eginak salatzen dituen; ziurtatze pertsonalaren tokia; errua ikasbidea bihurtzen duena; errudun sentipenaren ezabatze lanetan laguntzaile bikaina. Ezinbesteko protagonismoa ematen duena.

- Harremanak: Pertsonalak. Irakaslea laguntzailea da. Talde dinamika-ren zaintzaile eta koordinatzaile.
- Taldeen antolaketa: Lagunartean eta elkarrekin egon nahi dutenen artean ahal baldin bada egina. Maila ezberdinetako taldeen osaketa aberasgarria gertatzen da, ikasleak ikasleari irakasteko aukera ematen dionez, irakasle lanetan dabilen ikasleak bere baliotasuna sentituz eta ikasle eremuan dabilenak kidekoaren hurbiltasun didaktikoa ere sentitzen du. Ikasle-irakasle banaezinaren bizipen baikorra gertatzen da. Hamar ikasle baino gehiago ez daude talde bakoitzean.
- Testuliburuak: Eskoletan erabilitakoak: Jo-ta-ke, Baietz, Bakarka, eskolako ariketak, eginiko azterketak, hitz batean eskuartean dituztenak.
- Laguntzaileak:
 - Haritz Mendiguren. Euskaldun unibertsitarioa. Euskara eta ingelesa irakatsi ditu. Titulu gabea.
 - Myriam Pérez del Olmo: Euskalduntze bidean dago. Unibertsitarioa. Ordezkoak egin ditu eta matematika irakatsi. Garbitasunaren ardura-duna. Euskaltegiko ikaslea.
 - Olatz Martinez: Euskalduntze bidean dago. Kazetaria. Ordezkoak egin ditu eta euskara irakatsi ere bai. Euskaltegiko ikaslea.
 - Loreto Alonso: Euskalduntze bidean dago. Selektibitatea egin behar du. Euskara irakatsi du. Euskaltegiko ikaslea.
 - Enrique Pablos: Euskalduntze bidean dago. Irakaskuntza ikasketak egiten ari da. Euskaltegiko ikaslea.
 - Arantxa Sarasua: Euskalduna. Titulu gabea. Euskara irakatsi du.
 - Arantxa Ugartetxea: Euskalduna. Titulatua. Pedagogoa. Euskara irakatsi du.
 - Eta aipamen berezia merezi dute: Eskoletan ikasleek eduki izan ditugun irakasleek. Denak era batera edo bestera geure artean aipatuak izan zarete. Zuengan bizi izan dugu euskararekiko identifikazio pertsonala. Zuen iritzia, zuzenketak, erruak, egoera atsegin eta ezatseginen dastatzaileak gara. Zuengandik asko ikasi dugu zenbait kasutan, besteetan euskalduntze bidetik urruntzeko aitzakia izan zarete. Baina ahalegin pedagogiko on batean ibili zaretenak, zuen ikasle izandakoen euskal bizipen aiantzi ezinean bizi zarete.

PREBENTZIO LANA

Azken urteetan batez ere, oso nabarmen lan egin behar izan dugu terapia pertsonala gisara, etorri zaizkigun zenbait ikasleekin. Nola? Ordu akademikoaren zati bat, ikasleak baretzen saiatuz: bata bestearenganako errespetua landuz; pertsona bakoitzaren leku ezinbestekoa ikusiz; ziurtasun pertsonalak indartze ahaleginean eta hau dena afektibitatez zamaturiko giroan.

